

# Jose Antonio Arana

## Martixa herri gizon osoa

### Manuel Lekuona Saria 2010

Lizundia Askondo, Jose Luis

#### 1. Gernikan hasita

Batzuetan uste da “herri-gizon” hitza politikoei edota herri hautetsiei bakarrik dagokiela. Ez da hori horrela, zeren eta badira gizon edo emakume batzuk, herri-tarren artean gailenduak edota merezimenduz ezaguera publiko bat dutenak. Horietako bat izan da, igaro den apirilean, zendu zen Jose Antonio Arana Martija.

Jose Antonio Gernikan jaio zen II. Errepublika sortu baino hilabete lehenago, hain zuzen, 1931ko martxoaren 10ean. Aita, Gregorio Arana muxikarra, eta itsas kapitaina; eta, ama, Kristina Martixa, gernikarra. 1936-39ko gerra “inzibil”ean mutiko koskor bat zen, zeinetan 37ko apirilaren 26n bonbardeatu baitzuten bere jaioterri maitea aleman-naziek, legezko gobernu demokratiko baten kontra altxatu ziren Franco eta Mola jeneral traidore-terroristen enkarguz. Gertaera horrek zirrara izugarria sortu omen zion Jose Antoniori, ondorioz, besteak beste, aita kartzelara eta, ama, umeekin erbestera.

1942an seminarioan sartu zen, bertako ikasketak eragin zuzena izan zuelarik bere formazio humanistikoan. Gero, Deustuko unibertsitatean Zuzenbidean lizentziatu zen eta Ekonomia ikasketari ekin zion Bilboko Elkano kaleko Merkataritza Eskolan.

Herrigintza lanetan oso gazterik murgiltzen da, Gernikan bertan: JOC (Juventudes Obreras Cristianas) taldean, “Brisas Guerniquesas” aldizkarian idazten, garai haretan, gaztelaniaz, ezinbestean, bere gustuko gaietan: musika, literatura, historia eta beste, 1959an aldizkariaren zuzendari izendatzen dutelarik. Jose Migel Barandiaranen laguntzaile ere izan zen eskualdeko Atxetako koba induskatzen.

#### 2. Jose Antonio Arana herri-gizon, politikan, hain zuzen

Jose Antoniori izeretako bat, behar bada gutxien ezagutua eta aitortua, herri-gizon legez izan da. Politikoa zentzurik zabalenean, “polis” hori baita. Zer da, bestela, gazte gaztea zenean JOC (Juventudes Obreras Cristianas)en sartuta egotea?,

sindikatu librerik ez zegoenean, oinarrizko Eliza –ez jerarkikoa– bai zen ekintza askoren aterpe.

Gernika eta bere emazte Maiteder ingurua kontuan izan behar dugu jakiteko Jose Antonio herrigintza lanetan sartuta edota sar arazita izan zela lekukotzeko. Horregatik bi aldiz kartzelaratu izan zen. Herriko aldizkarian agertutako artikuluetan nabari da bere konpromisoa, zeharkakoa bada ere. Ezin bestean garaiko udal frankistarekin kolaboratu behar bazen ere, zeren eta herrigintza lege barruan eta legez kanpo ere egin behar bai zen.

1976 urtean, Franco hil eta berehala, Jose Antoniok hartu zuen konpromiso politiko bat ESB (Euskal Sozialista Biltzarra) alderdian sorreratik parte hartuz. 1979ko apirilean, lehen udal eta foru hauteskundeak, II Errepublikako 1936ko otsailetik lehenak, egiten direnean, Jose Antonio Herri Batasuna koalizio zerrendetan bi kargutarako aurkezten da eta bietan ateratzen da: Gernika-Lumoko zinegotzi eta Bizkaiko Batzar Nagusietako batzarkide. Egia esan, Jose Antoniori, orduko sistemaren arabera, eskualdeko foru diputatu izatea ere tokatzen zitzaion, EAJren ondoren bigarren indarra baitzen HB, Busturia hautes eskualdean, baina zerrendan atzerago zegoen batek harrapatu zion kargua. Ondo oroitzen naiz Bizkaiko Diputazio Jauregian nengoela, ni ere batzarkide atera bainintzen Durango-Arratiatik, EETik, hain zuzen, galdetu niolarik harrapatzaile-apatxiki horri : “nolatan jabetu zara zu foru diputatutzarekin, Jose Antonio aurrerago izan da?”. “Hori horrela erabaki da, erantzun zidan”. “Ez hemen, foru jauregian, beste alde edo alderdiren baten izango zen”, ihardetsi nion. Jose Antonio oso foru diputatu trebea izango zen, adibidez Kultura Sailean eta, gainera, ondo konponduko zen Jose Mari Makua diputatu nagusiarekin. Gero, karguaz jabetu zenak eta bere lagunek ez zuten parterik hartzen foru erakundeetan, ez eta, hurrengo urtean, Eusko Legebiltzarrean.

Esan behar da ESBk Batzar Nagusietan parte hartzen zutela eta, hala jarraitu zuela, Jose Antoniok foru agintaldia 1979an bukatu arte.

Adibidez, Gernika eta ingururako batzorde berezi bat sortu zelarik Batzar Nagusietan, talde guztiak osatua, biok izan ginen partaide eta badakit nolako ahalginak egin zituen. Zoritzarrez, perspektiba historiko faltaz, alderdi nagusiak ezabatu zuen batzorde hori eta domaia zuen Jose Antoniok askotan esan zidanez: Picassoren “Guernica” Gernikara, Gernika eta Euskal Foruak, Gernika eta Euskal Museo eta Artxiboa, Santimamiñe eta bere auzoa Oma, Urdaibai eta beste helburu garrantzitsu baitzituena batzordeak, seguru asko transizioan eta orduko Madrilen ahu- lezia eta kreditu politikorik ezaz, hemengo indar bateratuekin posibletzat jotzen genituenak. Geroztik, politika aktiboa utzi zuen, baina esan dezaket, hil arte politikoa izan zela, interesatua beti ere, euskaltzale eta abertzale. Ordena horretan, zeren eta abertzale ez zirenekin harremanak bideratzen bai zekien, euskaltzale eremuan adostasunerako prest eta pozik. Baditut lekukotasun pertsonalak, biok Euskaltzaindian lanean izan arren, alderdi desberdinetan bai keunden.

### 3. Musika arloan maisu

Euskal musikagintzan ere eragile izan zen Jose Antonio. Hasi herri mailan, Gernikan, Santa Zezilia abesbatzan 1954 inguruan, nola antolatu zuen Guridiren *El Caserío* zarzuela. Geroago Ochote Bogamazua izenekoaren partaide da, zortzikote hori zuzenduz bost disko grabatzen dituelarik. 1978an Andra Mari Korala sortzen du, urte askotan zuzendari izan zelarik.

Gernikatik ateratzen bagara, euskal musikari buruzko irratia saioetan parte hartzen du Bilboko Herri Irratian eta Radio Nacional de Españan, batean euskaraz eta bestean, gaztelaniaz.



Euskaltzaindiaren Zuzendaritza bilera Elkano kaleko egoitzan

Musika arloan nire jakituria oso eskasa da. Baina, badakizkit gauzak baloratzen eta Jose Antonioren kasuan, euskal musika arloan, “nota”rik altuena ikerketan du. 2002ko maiatzaren 17an, Bilboko udalak omenaldi bat eskaini zion Bidebarrietako bibliotekan, Henrike Knörr euskaltzain arabarra, Joseba Agirreazkuenaga historialari busturiarra eta Anton Zubikarari kazetari ondarroarra ziren hizlariak. Euskal musikaz asko zekien kazetariariak han entzundakoak, argitaratuta daude (ik. A. Zubikarai, “*Música Vasca*” in *Bidebarrieta: Revista de Humanidades y Ciencias Sociales de Bilbao = Bilboko Giza eta Gizarte Zientzian Aldizkaria*, 14 (2003) 351-355. or.) eta nabarmen, nabarmen hitzaren zentzurik positiboenean, baloratzen du Arana Martijaren *MUSICA VASCA* liburua, 1976an eta 1987an argitaratua. “La

*nómina de autores y su localización es muy abultada (nadie pensaría que hubo tanto músico vasco en todas las épocas) y en un esfuerzo de sistematización Arana ofrece...*” (353 or.). Zenbat ordu sartu ote zituen Jose Antoniok hainbeste musikagile eta musika gizonen lanak eta biografiak arakatzeko, ordenatzeko eta baloratzeko. Gainera ez zen konformatzen bere ikerketez, ni bezalako profano bati ere beti zeukan zerbait baneki galdetzeko, hala nola Valentin Maria Zubiaurre Madrilgo Real Capillako zuzendari eta musikagile garaitarrari –Valentin eta Ramon Zubiaurre margolarien aita, hain zuzen– buruzko xehetasunik apurrenak jakinguran. Gauza bera Abadiñoko Nikolas Urien musikoari buruz, zeinen jaiotetxeari buruz datu batzuk jakin nahi zituen, hain zuzen Muntsaratz auzoko Gantzaga baserrian jaiotua bai zen.

“Musica Vasca” geroztik ere euskal musikagintza alorrean hainbeste artikulu, hitzaurre, liburu eta liburuskak idatzi zituen. Ez naiz hasiko bibliografia egiten, hori zehatz eta bikain egin bai dute Pruden Gartzia eta Josune Olabarria Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekako zuzendari eta teknikariak, Manuel Lekuona Saria Jose Antonio Aranari emateaz Eusko Ikaskuntzarentzat prestatu duten liburuan. Bat edo beste aipatzearen: *Ópera vasca en Vizcaya*; *Bernardo Gabiola, Jose Antonio Donostia (1886-1956)* liburuak, besteak beste. Hitzaurreak, hala nola, *Bartolomé de Ercilla, Colección de cantos vizcaínos*; *Los marijeses (1963an, lehena!)* 1951an, “*Un poco de música*”, *Brisas guerniquesas* aldizkarian hasi eta 2009an, “*Gabon kantak eta arkaismoaren bestelako mintegiak*” Arratzun Joseba Lakarra euskaltzainari bere sarreran egindako erantzunaz buka, dozenaka eta dozenaka artikulu musikari buruzkoak.

#### 4. Arana kultur eragile

Jose Antonio Aranaren kultur eragiletasunaz zertxobait esan beharra dugu, zeren eta musikaz eta Euskaltzaindian egindako lanen artean ezkutatuta gelditu baita askorentzat.

“Foru Urian”, Gernikan frankismo garaian eta gero dozenaka ekintza kulturetan sartutakoa edo parte hartutako herri-gizona izan zen Jose Antonio, batzuk, aipatutakoak jadanik.

Ez nuke nahi Jose Antoniori ondo atera ez zitzaion ahalegin edo inizatiba bat aipatu gabe utzi. 60. hamarkadaren amaieran izango zela uste dut. Nigana hurbildu zen, jakinik Gerediaga Durango Merindadearen Adiskideen Elkarteko sortzailetariko nintzela eta, une hartan, idazkari karguaz, jakiteko zenbait gauza: elkarrearen estatutuak, sortzeko gestioak, bane funtzionamendua eta beste. Zer zen bada bere egitasmoa: Busturia Merindadearen Adiskideen antzerako elkarte bat sortzea, Busturialde eskualde mailako kultur elkarte bat alegia. Ez zuen lortzerik izan, seguru asko, bere fitxa politikoagatik, erregimenaren aldeko edota fitxarik gabeko ez zuelako kargu nagusietarako inor aurkitu edota konprometitu. Seguru nago kargu nagusirik gabe, eskualdeko elkarte horretan lanik gehien berak egingo zuela.

Zeren eta “Brisas Guerniquesas” edota “Aldaba” aldizkarietan idazten zenean, ez zen idazle soil gisa ari, baizik eta herriko kultur eragile. Gauza bera, Seber



Euskaltzain osoen bilera Bilboko egoitza nagusian

Altube ikastolaren sorrerako bultzatzaileetarikoa izan zenean, alde batetik guraso euskaldun legez, baita ere, Euskal Herriko hiri handi eta ertainetako, Gernika barne, euskal kultur eragileetarikoa bat izan zen Jose Antonio. Hortaz, nire Euskaltzaindikoko sarrera hitzaldian, gaira datorren, honako hau esan nuen:

Hau guztia garatuz –IV. Ikastolen loratzea, kapituluan nengoen– ikusiko litzateke nolako “transbersalitatea” zegoen 60. hamarkada ilun hartan, nola zirkulatzen zuten euskalgintzako lagunek, “Zeharkalean” zehar, eginkizun batetik bestera. Kasu honetan, ikastola mugimenduaren mesedetan, zeren eta 60. hamarkadaren bukaeran, ia ehun bat ikastola loratuta baitzeuden Euskal Herrian...

Eragileetarikoa bat Arana Martija, baina ez Gernikako ikastola mailan bakarrik, baizik eta nolabaiteko gizarte aseguratza bat andereñoen mesedetan bideratzeko. Hortaz, guztiz onuragarria izango litzateke, bere hurbileko idazkari leial izandako Josune Olabarriak, Lagun Aroko aseguru etxearen bidez, Jose Antonio eragileak irakasleen egoera laboralik zailenetan kudeatutako lanari buruzko kronika garatu bat idaztea.

Gernikaz kanpoko euskal aldizkarietan normala zen eragileok bat egitea. Jose Antonioren sinadura *JAKIN*, *ANAITASUNA*, *ZERUKO ARGIA*, *RSBA* Peko Boletina, *EGAN*, *TXISTULARI*, *ARANZAZU*, *KARMEL* eta entziklopedietan eta egunkarietan 60 eta 70 hamarkadetan, batez ere, ikus daiteke, hori, beti ere, kultur eragile bezala egiten zuen, ez idazte gozamen soilerako.

## 5. Euskaltzaindian, Bibliotekan

Euskaltzaindiak bazeukan biblioteka eta artxibo akademiko aberats bat, gehienbat Resurrección María Azkuek utzitakoa, baina beste hizkuntz Akademiak ez bezala, ez zuen benetako bibliotekaririk (Real Academia Galegan, bibliotekaria, automatikoki, erakundearen zuzendaritzako kideetarik bat da). Une batez, Lino Akesolo ere aritu zen, tarte libreetan Erribera kalera joanda liburuzain gisa eta, baita, geroago, 70 hamarkadan hasieran, Nikolas Alzola Gerediaga, “Anai Berriotxo” lasalletarra, ordena honetako Deustuko ikastetxean irakasle izan zen garaian eta, ni egoitza zahar hartan idazkariorde lanetan. Azken hau dakart gogora, zeren eta Nikolas ene adiskide eta senitarteko mina, berriz Irungo Lasalle ikastetxe famatura destinatu zutenean adierazi zidan, bere ustez, Akademiak, ahalegin berezi bat egin beharko zukeela, bere langilegoan, bibliotekari bat, dedikazio eta profesionaltasun osoz hitzartuz. Eta, ez bera bezalako “afizionadutxu” bat, tarte libreetan, astean ordu gutxi batzuk artxibo-bibliotekara joanda.

Azaldu nien orduko zuzendaritza kideei: L. Villasante, J. Haritschelhar, J. San Martin eta E. Erkiagari, Anai Berriotxoaren iradokizuna eta begi onez ikusi zuten. Kasualitatez enteratu nintzen Jose Antonio lan arazoekin zebilela, besteak beste, berak inbertsio-agente bezala lan egiten zuen banku-konpainiak porrot egin zuelako.

Euskaltzaindiaren bibliotekari ardura proposatu, Zuzendaritzak onartu –ia gehienak ezagutzen bai zuten– eta laster hasi zen lanean, 1978 urtean, hain zuzen. Eta hasi, ekin eta erakundetu ere!. Bataiatu ere egin zuen “AZKUE BIBLIOTEKA”. Gaur egun, Azkue Biblioteka ia denek identifikatzen dute Euskaltzaindiaren biblioteka eta artxibo akademikoarekin.



Bilbo, 2008.06.28. Eusko Ikaskuntzako Musika Sailaren omenaldia

Buru belarri sartzen da bere eginkizun berrian, Erriberako egoitza zaharrearan eta laguntzaile bakar batekin, ordura arte, administrari lanetan nuen Nere Altunarekin. Orduantxe, F. Amorrortu Durangoko alkate eta Bizkaiko Diputazioaren lehendakariari esker behin-behingo bulego batzuk lortu genituen jauregiaren osteko Arbieto kalean, modu horretara Erriberako egoitza artxibo-bibliotekarako libratuz. Jose Antoniok eta Nerek, lehendabizi eta, geroago, Josune Olabarriak osatzen zuten biblioteka akademikoaren plantilla. Hurbiletik ezagutu eta lagundu nuen/nituen. Andere trebe biok, eta azkenaldian, Kristi Aranak ere, idatzi beharko lukete Azkue Bibliotekaren hasiera, garapena eta hedapen aberatsa. Ez bakarrik Euskaltzaindiarentzat, Euskal Herriko biblioteken historia orokorrerako ere onuragarria suertatuko litzateke.

1991an, Azkue Biblioteka Erribera kaletik Plaza Barriko egoitza akademiko berrira pasatu zen. Baina, ordurako, biblioteka arduradunak, Arana Martijak erakundearen Zuzendaritzari plangintza zehatza aurkeztua zuen, beronek onartua eta martxan jarria. Hain zuzen, 1981ean, Loiolan egindako II Barne Jardunaldietan, erakundearen organigrama berria onartu zen, zeinetan agertzen den Azkue Biblioteka batzordea jaun hauek osatua: A. Irigoien, buru; J. A. Arana, idazkari; kideak: E. Erkiaga, J. San Martin, X. Kintana eta Ekonomi batzordeko bat: X. Gereño, J. J. Zearreta edota ni, joaten ginen. Eta Jardunaldion ondorioz, Azkue Bibliotekaren Erregela Bereziak onartu ziren urte berean, oraindik ere ildo estrategikoa markatzen dutenak.

Erriberan hasitako hazkundera, ez bakarrik liburu, aldizkari eta abarren ugaritze aberatsez, baizik eta katalogatze lanak izan ziren lanik nabarmenenak. Hortaz landa, zenbait dohaintza eta lagatze garrantzitsuenak aipatzearen: Juan Carlos Guerraren artxiboa eta biblioteka, Euskadiko Kutxak lagatua; Norbert Tauer euskaltzale txekiarraren funtsa; Jokin Zaitegi eta Odon Apraiz euskaltzain ohorezkoen artxibo eta bibliotekak; Jon Bilbao bibliografoaren zati hautatu bat; Pierre Broussain euskaltzain lapurtarraren funtsa eta abar.

1978 geroztik jasoak: erosketa, dohaintza, lagatze edota trukaketa bidez, katalogatze moderno eta euskaldun bat eskatzen zuten. Ez zegoen, ez bata, ez bestea. Hutsetik hasi behar izan zen Euskaltzaindian eta, hori lortu zen Jose Antonio Aranaren gidaritzape argian. Azkue Bibliotekaren Katalogoa ez da izan erreminta ezinbestekoa erakunde akademikoarentzat bakarrik, baita ere euskal katalogatze lanetarako eredu orokor bat bihurtu da herri-biblioteka askorentzat, horrek balio erantsi bat eman diolarik, Jose Antonio eta bere ekipoari esker.

Jose Antonio bibliotekaren zuzendari izateari, lanetik jubilatua zenean, 1996an, utzi bazion ere, Azkue Bibliotekako batzorde buru gisa gaixotu arte jarraitu du. Era batera edo bestera, gaur egun, 64.000 ale ditu biblioteka akademikoak, hainbeste urtetako benetan uzta aberatsa.

## 6. Euskaltzain gisa erakunde akademikoan

1979an, euskaltzain urgazle izendatzen dute Arana Martixa beste euskalgintzako lagun andana batekin batera, hain zuzen, Jose Antoniok hainbeste miresten zuen Sebero Altuberen mendeurrenkari, honen jaioterrian, Arrasaten, Akademiak egin zuen bere IX. Biltzarraren amaieran: D. Landart, J. B. Etcharren, J. Casenave, J. Apezetxea, P. Ondarra, F. Barrenengoa, P. Sancristoval, P. Pujana, K. Rotaetxe, E. Etxezarreta, J.I. Telletxea Irigoras, J. Garmendia, P. Goenaga eta J.A. Mujikarekin batera. Denak bakoitza bere alorrean aski ezagunak, Jose Antonio eta beste bost zenduak dira jadanik: Ondarra, Barrenengoa, Pujana, Telletxea eta Garmendia.

Euskaltzain urgazle legez, berehala sartu zen eginkizun akademikoetan, hala nola, 1980ko Nazioarteko Euskalarien Jardunaldietako batzorde suntsikorrean, zeinetan, berak, idazkaritza ardura eraman zuen eta, nik, azpiegiturarena. Jardunaldi hauek, benetako kongresu maila izan zuten, zeren eta mundu guztiko euskalarien topaketa izan baitzen, gaztelaniaz, “Encuentros Internacionales de vascológicos” eta, frantsesez, “Rencontres Internationales de bascologues” izenekin hedatuak izan zirelako. Hor, Jose Antoniok bere trebezia erakutsi zuen. Jardunaldi horien jarraipenez, “Euskalariekin Harremanak” izeneko batzordea sortu zen, Loiolan, 1981ean, egindako II Barne Jardunaldietan, bertan, J. San Martinen buruzagitzapean, idazkari ardura hartu zuelarik Jose Antoniok. Loiolan, baita ere, EUSKERA eta Argitalpen Batzordeko kide gisa izendatu zen. 80. hamarkadan, Euskal Herriko



Bizkaiko Foru Aldundia 2011.10.14. Manuel Lekuona sari emate ekitaldia Jose Antonio Arana Martixari. Saria Aranaren familiak jaso zuen, hil ondoko ospakizuna gertatu baitzen



Bertsolari Txapelketak Euskaltzaindiak antolatzen zituenean, Jose Antonio beste taldekide batzuekin batera, eraketa lanetan euskal eskualdez eskualde, aritu zen. Hamarkada bukaeran, Batzorde Juridikoko kide ere izan zen, geroago, diruzain izendatu ondoren, Lege-ekonomi batzorde bihurtu zelarik, partaide izaten jarraitu zuelarik.

Arana Martixa, euskaltzain urgazle bezala, beste eginkizun ugaritan ere parte hartu zuen, batzuk garrantzitsuak, beste batzuk xumeagoak, baina, horren garapena, bere biografia osoago baterako utziko dugu. Bat aipatzearen, *Euskaltzaindiaren historia laburra* (1984) izan zen emaitza interesgarria.

1988 urteko urriaren 28ko batzarrean, D. Juan Gorostiaga euskaltzain oso zendu berriaren aulkirako hautatua izan zen, bi hautagai aurkeztu zirelarik, X. Kintana eta Jose Antonio. Sarrera hitzaldia, hurrengo urteko uztailaren 28an, Gernikan egin zuen, gaitzat, "*Euskaltzaindiko aulkien historiaz hurbiltze bat*" izan zelarik. Txosten hori, erreferentzia baliozkoa suertatu da erakundearen historiarako, sorreratik izan diren akademikoen zertzelada eta xehetasun kronologikoz ondo hornitua.

Euskaltzain oso bezala eta, alde batera utzita hurrengo kapituluan garatuko dudan zuzendaritza karguarena, eginkizun ugaritan parte hartzea tokatu zitzaion. Hainbat ikerketa lan eta txosten instituzional aurkeztu zituen, eten gabe, bere osasuna azken urteotan ahuldu arte. Luze joko luke gaika eta kronologikoki zerrendatzea. Gehienbat *EUSKERA* agerkarian argitaratuak, oraintsu, Eusko Ikaskuntza erakunde honek 2010eko Manuel Lekuona saria dela, Pruden Gartzia eta Josune Olabarriak prestatu eta argitaratutako bibliografia oparoan (117-143 orr.) ikus daiteke.

## 7. Euskaltzaindiaren diruzain karguan

Euskaltzain oso hautatu eta bi hilabetera, Zuzendaritza kargu berritza tokatzen zen eta, ia inoiz gertatu ez dena, sarrera protokolaria egin baino lehen, diruzain izendatua izan zen, Jean Haritschelhar, buru; Juan San Martin, idazkari eta Jose Maria Satrustegi, idazkariarekin batera, erakundearen gobernamentuaz arduratzeko. 1989ko urtarrilaren 19an, karguaz jabetu ziren lauak Bizkaiko Jaureriaren jauregian.

Urte berean, Oñatiko Unibertsitatean, Euskaltzaindiak sinatzen du lehendabiziko hitzarmen ekonomiko-instituzionala Hego Euskal Herriko bost Herri Aginte nagusiekin: Eusko Jauriaritza; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin eta, era berean, Nafarroako Foru Aldundi eta Gobernu denarekin. Ardantza lehendakaria eta beste lau foru erakundeetako ordezkari nagusiekin batera sinatzen du Jean Haritschelhar euskaltzainburuak, hurbil dituelarik beste hiru zuzendaritza kideek, noski, gure diruzaina. Ondotxo dakit hitzarmen historiko horretan Jose Antoniok egindako ahaleginak, eskuz esku aritu bai ginen "sukaldaritza" lanetan. 1995 eta 2000 urteetan berritatu eta sinatu zenean Hitzarmena, han zegoen Arana Martija lehen lerroan.

Hamabostero ohikoa egin zuen prozedura kontatu beharra dut. Oraindik Jose Antonio bibliotekari bezala Erribera kalean eta, gu, bulego orokorreko Elkano kalean, etortzen zen nire despatxu aurreko salatxora eta, hirurok, bera, diruzain kar-

guaz; ni, idazkariorde-kudeatzaile legez eta, Juanjo Zearreta, ekonomi eragile gisa biltzen ginen eta zer diru sarrera geneukan eta zer ordainkizun aztertzen genuen, honetarako, faktura-zerrendari diruzain bezala, oniritzia ematen ziolarik. Hor ikusten zitzaion bere ekonomiketako ikasketen sena. Xabier Gereño, lehentxoago jubilatua, gai ekonomikoetan bera zen hirukotean Zuzendaritzaren ordezkari. Aurrekontuen kudeaketa ez zitzaion/zitzaigun beti erraza suertatzen.

Lakuan egiten ziren Herri Aginteen Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen bilerak. Batzar neketsuak, dirua eskatzen joan behar duenarentzat ongi prestatu beharrezkoak, ez horrenbeste, agintari kontu hartzaileentzat. Jose Antoniok estimatzen zuen Diruzaintzako lankidetzak, baita ere Jean Haritschelharrek ere, zeinek, liberalki eta arautegiaren arabera eskuduntzak errespetatzen beti jakin zuen. Baita, une batez, 1995ean, Euskaltzaindia krisi ekonomiko larria jasan zuenean ere.

2003ko irailaren Atharratzen egin zen osoko bilkuran agertu zuen, hitzez, Jose Antonio Aranak diruzaintza kargua uzteko gogoia, osasunez ez zebilelako ondo. Hala ere, ez zitzaion onartu, abenduaren 19koan, dimisio ezeztatzina aurkeztu arte. 2004 urtearen hasieran, hile batzuk lehenago euskaltzain oso izendatua nintzelako eta, bere ustez, zamadun kargu horretarako egokia nire izena proposatu zuen. Hamabost urteko kargu eta “karga”, batez ere diru eske eta diru eskas ibiltzen den era honetako erakunde batean, eraman zuen Jose Antonio Arana Martijak.

## **8. Azken “land rover”etariko bat**

Kapitulu hauetan azaldu bezala, ez zen Euskaltzaindian bakarrik lanean aritu, erakunde akademikoan gehien nabarmendu bazen ere, baizik eta beste erakunde –Eusko Ikaskuntza barne–, elkarte, talde, alderdi, instituzio, aldizkari eta bestetan parte hartu zuen.

Ekintza, ikerketa, nahiz saio; kulturgintza, euskalgintza nahiz herrigintza izan ziren Jose Antonioren goiburu eta helburu. Behinola, Juan San Martin hilberrian “euskal land rovera” kalifikatu nuen, gaztelaniaz “todo terreno” bat zelako euskal kulturaren eta herrigintzan. XXI. mendearen hasiera geroztik joan zaizkigunetatik, marka edota maila horretako XX. mendeko jaun hauek behintzat joan zaizkigu: Luis Villasante, Jose María Satrustegi, Juan San Martin eta, urte honetan, Xabier Gereño eta... **Jose Antonio Arana Martixa.**